



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2025eko MARTXOAREN 4AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2025eko martxoaren 4an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Ana Agesta Echecolonea
Gillermo Otegi Zubillaga

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Unai Sorarrain Urruzola
Urruzola, Nagore Arizeta Garmendia eta Jose M^a Aranzabe

IDAZKARIA:

Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
2. **Fakturak eta ordainketak.**
3. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2024 kitapenaren berri ematea.**
4. **Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari 2025 urteari dagokion ekarpena burutzeko onespina ematea.**
5. **Oiargi Mendi Elkartek eginiko 2025 ekitaldirako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
6. **Aiztondo Neskide kirol taldeari 202 urtean emandako diru-laguntzaren kitapenaren onespina.**
7. **Aiztondo Neskide kirol taldeak 2025 urterako eginiko diru-laguntza eskaera aztertu.**
8. **Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarteak, 2025 urterako eginiko diru-laguntza eskaera aztertu.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Mozioak, erreguak eta galderak.**
- 10.1. **Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko eguna dela eta, EUDEL-ek aurkezturiko adierazpen instituzionalaren onespina.**



ALKIZAKO UDALA

.../...

LEHEN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 04/2025tik 09/2025 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

BIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

PIENSOS BARBERA	566,28
NAGORE ERRAZQUIN	326,70
IRATI APAOLAZA	300,00
GUREAK MARKETING	0,59
ORANGE	231,06
ORANGE	35,27
GIZA HEZIKETARKOA KALEXKA ELKARTEA	1.500,00
IZADI LABORATEGIA	165,77
ORONA	417,45
OBBTKN	1.058,96
DEKOARBERAS	60,98
BAXI	181,50
GOIENER	365,60
GOIENER	669,42
GOIENER	36,15
GOIENER	625,53
GOIENER	62,25
GOIENER	165,32
GOIENER	41,18
GOIENER	1.090,32
GOIENER	239,81
GOIENER	11,66
GOIENER	60,79
GOIENER	21,91
GOIENER	372,00



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	149,45
MICRONET	59,90
EUDEL	300,51
OTIS	537,60
ARGITU	272,30
DIONISIO ORMAZABAL	199,49
FONTANERIA ANTZIETA	255,46
MAIXA LIZARRIBAR	345,00
JUAN JOSE ARREGI	356,95
JOYN MOBILIARIO	1.712,15
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	192,00
BUREAU VERITAS	375,10
GARBIGRAS	1.285,02
IRAOLA	17,75
KUKU-LORE LIBURUDENDA	34,20
DEKOARBERAS	16,84
OSCAR GALINDO	136,31
KUKU-LORE LIBURUDENDA	83,43
ULAHI ORONA	668,68
NORTEGAS	29,45
NORTEGAS	362,79
EBA ERKIZIA	2.217,68
URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA	271,04
QUISER	243,63
SOLRED	119,47
CALPARSORO INDUSTRIAL	9,16

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **19.113,19** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

HIRUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK AURKEZTURIKO 2024 URTEKO KITAPENAREN BERRI EMATEA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2024 urteko kitapena, non azaltzen duen, Alkizako udalak 27.000,00 euroko ekarpena egin ziola Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari, baina udalak egin behar zuen ekarpena 22.891,77 eurotako zela. Beraz, Alkizako



ALKIZAKO UDALA

udalaren alde 4.108,23 eurotako diferentzia ateratzen da, udaletxeko kontuan ingresatua izango dena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko 2024 ekitaldiko kitapena onestea.

LAUGARREN PUNTUA

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEARI 2025 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ONESPENA EMATEA

Ikusirik, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko batzar Nagusiak, 2024ko abenduaren 14an ospatutakoak, beste gai batzuren artean UEMAKo kide diren herrien 2025rako kuotak ere onartu zituzten udal ordezkariak.

Ikusirik, aipatutako batzar nagusian, erabaki zela Alkizako Udalak 2025 urtean 3.881,61 eurotako kuota bat ordaindu behar duela. Kuota, ordainketa bakarrean egingo da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak 2025 urtean 3.881,61 eurotako kuota bat ordaintzea UEMA-ri. Aipaturiko kuota, ordainketa bakarrean egingo da,

BIGARRENA: 3.881,61 eurotako gastua onestea, eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, 2025ko udal aurrekontuetako 481.335.00.05 kontu sailaren kontura.

BOSTGARREN PUNTUA

OIARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO 2025 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2025eko ekainaren 15ean ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrak) maratoiaren X. Eta T2T erdi maratoiaren VIII. edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, parte-hartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 374 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2025eko ekainaren 15ean ospatuko diren T3T X Eta T2T VIII. edizioetan antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 374,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2025 urteko Udal aurrekontuetako 481.340.00.02 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

AIZTONDO NESKIDE KIROL TALDEARI 2024 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA

Ikusirik "Aiztondo Neskide kirol klubak", aurkeztu duela 2024 urtean jasotako diru-laguntzen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: "Aiztondo Neskide kirol klubak", 2024 urteko Alkizako udaletik jasotako diru-laguntza zuritzeko, aurkezturiko kitapena, Alkizako udalak onesten du.

ZAZPIGARREN PUNTUA

AIZTONDO NESKIDE KIROL TALDEAK 2025 URTERAKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik Aiztondo Neskide Kirol Kluba-k eginiko eskaera, non dioen, bailarako emakumeen kirola bultzatzeko sortu berria den klub honek, bere helburuak aurrera eramateko, hau da, emakumeen talde kirola bultzatzea, ezinbestekoa duela bailarako udalerrien diru-laguntza. Horregatik Aiztondo bailarako udaletxeei diru-laguntza egiten die.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Neskide Kirol Kluba-ri 500,00 eurotako ekarpena burutzea 2025eko Udal aurrekontuetako 481.340.00.99 Kontu sailaren kargura.

BIGARRENA.- 500,00 eurotako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Aiztondo Neskide Kirol Kluba-ri jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurituaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK, 2025 URTERAKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA AZTERTU.

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik 2025 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.04 partidari aurreikusi dela diru kopuru nahikoa aipaturiko diru-laguntza esleitu eta ordaintzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale elkarteari 500,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 500,00.- eurotako gastua onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea, 2025 urteko Udal aurrekontuetako 422.334.00.04 partidaren kargura.



ALKIZAKO UDALA

HIRUGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari jakitera ematea, gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan, dagozkion fakturak aurkeztuz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA
MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

10.1. MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, EUDEL-ek AURKEZTURIKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA

Ikusita, EUDEL-ek aurkezturiko erakunde adierazpena, martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna”, non ondorengo dioen:

“2025eko martxoaren 8rako EUDELeko Ereduzko Adierazpena

Beijingo Adierazpenaren eta Ekintza Plataformaren 30. urteurrena; hiru hamarkada berdintasunaren bidean

Gaur, 2025eko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma adopzioaren 30. urteurreneko ospakizunarekin bat egin nahi dugu. 1995ean Beijingen egin zen Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentzian adostutako akordioek genero-berdintasuna, emakume eta neska guztien ahalduntzea eta giza eskubideak gauzatzeko munduko ibilbide-orria abian jarri zuten.

Ibilitako azken 3 hamarkadetan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina bilakaera desorekatua izan da eta oraindik munduko herrialde bakar batek ere ez du lortu emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasuna. Hala eta guztiz ere, berdintasun-indizeek aurrerapena nabarmena izan dela erakusten dute, berdintasun-politiken araudi- eta erakunde-garapena eta mugimendu feministaren bultzada iraunkorra bateratu diren testuinguruetan.



ALKIZAKO UDALA

30. urteurren horrek konpromisoak eta borondateak berritzeko aukera ematen digu, Beijingen adostutako berdintasunaren helburuak lortzeko, beharrezkoak diren baliabideak bideratuz, erronkei eta oraindik dirauten oztopoei aurre egiteko. Euskal erakundeek eta, bereziki, tokiko gobernuek, 30 urte hauetan metatutako ebidentzia dute, eta horrek agenda feminista globalean oinarritutako berdintasun-politiken bermatu eta legitimatu egin du.

Euskal udalek genero-berdintasunaren lorpena bizkortzeko mundu-mugimenduarekin bat egin dute, emakumeen eta nesken ahalduzaren eta emakumeen eskubideen defentsaren aldeko apustua eginez. Tokiko eremutik arlo kritiko globaletan aurrera egiten laguntzeko,..... Udalak ondorengo konpromisoak hartuko ditu:

- Sustapen-egiturak baliabide eta langile nahikoz hornitzea, berdintasunerako eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko politikak garatzeko, Berdintasunerako Politika Publikoen Kalitate-Estandarren arabera.¹
- Emakumeen elkartegintza eta elkarte feministak sustatzea, horien bidez, berdintasun politika publikoetan, emakumeak solaskideak izan daitezen eta eragin dezaten.
- Tokiko gobernuetan emakumeek eta gizonak berdintasunez parte hartzeko eta eragiteko errazten dituzten baldintzak sortzeko akordioak hartzea.²
- Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak eta bizirauleak onbideratzeko.
- Herritarren artean, indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea, gizonak eta mutikoak bereziki mugiaraziz.
- Zaintzen ekonomia eraldatzeko tokiko prozesuak abian jartzea, ikuspegi feministatik.
- Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruzko tokiko ekintza-planetan jasotako agenda feministen gaineko kontuak ematea, aldian-aldian."

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, EUDELEK aurkezturiko, martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna dela eta erakunde adierazpena onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.46 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

